

## Maitane Hidalgo izango da 2014-2015 ikasturteko doktoretza aurreko bekaren onuraduna

2014/12/19

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Ebaluazio Batzordeak, kasu honetan Doktorego batzordeak, esleitu du 2014-2015 ikasturteko doktoretza aurreko beka: **Maitane Hidalgo** izango da 2014-2015eko Doktoretza Aurreko Laguntzetarako Programaren esleipenduna onuraduna.

Esleipena egiteko, Ebaluazio Batzordeak ziurtatu du eskatzaileek beteta dituztela deialdian ezartzen diren baldintza guztiak, bereziki, bertako bigarren puntuan agertzen dena, alegia, Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko 2014-2015 ikasturterako irekiko duen doktorego aurreko beken deialdira aurkeztua eta prozesuan onartua izatea.

Bestalde, aurreko ikasturteko bi bekadunen laguntza berritze-eskaerak aztertu ditu batzordeak eta erabaki du onartzea Nekane Miranda eta Aroa Murciano doktoregaien eskaerak.

